

MABRILEK DIO:

EUSKADI EZ DA ESPAINIA

Euskadi ez da Espainia!

Hau da Madrildik datorren jokaeraren agiria.

Hau da Euskaditik kanpo bizi diren politikarien joera. Madrildik aldeko politikariek eta hango komunikabideek bereziki, beren ekintza eta adierazpen guztietan hori horrela dela erakusten digute.

Ez da hau gauza berria..., mendeetan zehar ia berdin izan dena baino.

Azkenengo ekintza Strasburg-en gertatutakoa da:

Strasburg-eko udalak Eurodiputatu berriei ongi-etorria emateko, orkestrarik berriena eta gazteena, Euskadiko Orkestra gonbidatu zuen. Baina Espainia-ko Eurodiputatuak boikot egin zioten, Espainia-ko komunikabide guztiak ere, beren isiltasunez, boikot horrekin bat etorririk!

Euskadi ez da Espainia, eta nola onartu ongi-etorri hori? Iraingarri gertatu ez bazaie, hortxe-hortxe!

Orain dela gutxi Andaluzia-ko neska bat izan zen Eurovisioko kanta-lehiaketan Espainia-ren ordezkari, hango kantakeraz, noski; Andaluzia Espainia da eta! Baina Euskadi?

Strasburg-eko boikotaren aurretik, Euskadin egin zen munduko Sambo txapelketa ere ez da ahaztuzekoa: zer? eta go-

bernuak munduko txapelketa galerazi! Munduko Sambo federazioak, ez zen gutxiagotarako izan ere eta, harriturik geratu ziren. Euskadi Espainia ote da, ba!

Bartzelonan Txillida-ren erakusketa dela eta, isiltasuna...

Europak ikusi beBar ote ditu agiri hauek?

Euskadin pistolak bakarrik dira nagusi, ez kultur agerpenak. Euskadin hiltzaileak eta hauen lagunak bakarrik bizi dira. Han ez da askatasun ez bake egarririk. Euskadin guda-giroa dago bakarrik, eta ez bakerako ahaleginik...

Euskadiko kultur ohiartzunik ez dezala munduak entzun.

Euskadiko askatasuna eta bake-gogorik ez dezala munduak itu.

Euskadiko gizon aipagarrien eritzirik ez dezala munduak

Euskadiko elizgizon jatorren argirik ez dezala munduak

ETB Eurovisioan sartzeak Espainiari ematen dion beldurra... Espainiak munduan zehar zabaldu zuen Euskadiren itxura hori gezur hutsa dela agertuko ote den beldurra ez ote da?

Espainiak (politikariek eta hauen laguntzaileek: komunikabideek) aho-mihietan darabilen bake-nahia faltsoa dela agertuko ote den beldur ez ote dira?

Euskadi Espainia ote da?

Espainia izango balitz:

-Etxeko iegez onartuko lukete,

-barruko edo etxeko bakea lortzen benetako ahaleginak egingo lituzkete (baina Euskadi arrotz zaienez, ez da gerra-itxurari amaiera emateko ardura handirik somatzen). Bakea barik, garaipena nahi dute; ez anaitasuna, Euskadiren morrontza baizik.

-Ni espainiarra banintz, neure ezertxo ere galtzerik ez

- nuke nahi izango, ezta itxura txarra zabaitzerik ere.
- Norbere etxeokari izen ona eman, propaganda eginez, kultura etab. zabaldu, baina ez! Ez dute berea eta ez da harritzekoa.
 - Norbere gauzak estimu handitan izan ohi dira. Espainiako propagandan Euskadik ez ote du arrotz-tratua hartzen?
 - Ertzaintza, kanpoko delako, arrotz zaielako, ez dira harekin fidatzen; Euskadi Espainia ez deiako?
 - Nondik dator euskara isilean betiko hiltzeko, itzaltzeko gogo? Euskadi Espainia ez delako?
 - Euskadi Espainia balitz, mendeetan zehar euskal-gizon handien beldur ez ziren izango. Hamaikatxo elizgizon, euskaldunak zirelako besterik gabe, geratu izan dira apez-
Eiku edo kardinal izatera heldu gabe Espainiako agintariek
Eidea galerazirik.i
 - Mendeetan zehar Euskal Elizbarruti bat sortzeko oztopoak eta zangotrabak izan ditu Euskal Herriko Elizak agintarien aldetik...
 - Euskadi Espainia balitz, saiatuko lirateke Euskadiren itxura eta izate ona zabaltzen, egiari leku egiten... Espainiaren itxura ona zabaltzca izango bait litzateke.
 - Euskadi Espainia balitz, benetako bakea izango genuke, norbere etxean inork ez baitu gerrarik nahi; baina auzokoak ez omen du kezka gehiegirik sortzen...
 - Euskadi Espainia balitz, zeuk jakin zer gertatu beharko lukeen.
 - Norbere etxeko zikina, besteren aurrean ezkutatu egiten da, eta kanpotarrena, berriz, konturatu gabe nahiz konturaturik, guztien ikusmiran jarri... Espainiako Gobernuak eta beren komunikabideek ez ote dute Euskadirekin gauza bera egiten?
- Hau da urteetan Madrildik datorren dehiadar-agiria:
Euskadi ez da Espainia!

EDITORIALA